



Segundo bakoitzeko 1.015 litro ur jasotzeko gaitasuna du Arrizabalagako tunelaren ondoren jarritako harguneak. LANDER F. ARROIAIBE / ARCAZKI PRESS

Nafarroako ubidea martxan jarri dute

Nafarroako Gobernuak presidente Miguel Sanzek inauguratu du Nafarroako ubidearen lehen sektorea. Izarbebarri dagokiona da, eta, denegira, 1.100 hektarea ureztatuko dituzte eremu horretan.

Muruzabal herriko Eunateko base-lizaren ondoan egin du Sanzen gobernuak ubidea martxan jartzeko ekitaldia. Ebroko Ur Konfederazioko presi-

Herrialdeko presidente Miguel Sanzek inauguratu du azpiegitura horren lehen sektorea

dente Jose Luis Alonsok parte hartu du, bai eta Nafarroako Gobernuak eta inguruko herrietako beste hainbat agintariek ere.

Nafarroako Gobernuak buruak ohiko diskurtsoari eutsi dio Eunatean, eta Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea funtsezkotzat jo ditu herrialdeak garapena lor dezan. Azpiegitura horiei esker, hain zuzen ere, Nafarroa

eredu izanen da «Europako baratzearentzat», Sanzen arabera.

Arrizabalagako tunelaren irteeran jarri duten hargunearen bidez lortuko dute Izarberriarrek nekazariek ubideko ura beren lurra ureztatzeko. Segundo bakoitzeko 1.015 litro ur jasotzeko gaitasuna du harguneak, Nafarroako Gobernuak zehaztu duenez.

Datuak

885.000

Gipuzkoako Foru Aldundiak 885.000 euro gastatuko ditu aurten hondartzak garbitzeko. Hondartzaren denboraldia ekainaren 15ean hasiko da Deban, Getarian, Hondarribian, Mutrikun, Orion eta Zumaiain. Donostian eta Zarautzen herenegetan mila tona hondakin bildu dituzte Gipuzkoako hondartzetan.



40

Espainiako Guardia Zibilak hiru lagun abilotu zituen iragan maiatzaren 26an Loliuko aireportuan (Bizkaia), ustez 40 kilo kokaina garraiatzeagatik. Guardia Zibilaren esanetan, droga aulki batzuetan gordeta bidali zuten, Panamatik Alemaniara aurrera eta Alemaniatik Euskal Herria gero.

780

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aeronautika sektoreak 780 milioi euroko irabaziak izan zituen iaz. Etekinen %97 Hegan EAEko aeronautika eta espazio klusterreko kide diren 32 enpresen artean eskuratu zituzten. Ignacio Mataix klusterraren presidentearen arabera, urtebetean %8 handitu zuten negozioen bolomena.

Udalbiltzak berrantolatzeke konpromisoa hartu du

Prozesua bultzatzeko, nazio instituzio bakarra berrindartzea beharrezkoa dela ohartarazi du

Lan horretan, baina, ez da ezerezetik abiatuko. Udalbiltzak hileak daramatza herriz herri alderdiatiko ordezkarien arteko harremanak bultzatzen. Aberri egunean erakunde gisa herrietan egindako ekitaldiak horren adibidetzat eta «urrats positibotzat» ditu.

AITZIBER LASKIBAR
Bilbo

«Udalbiltza da euskal herritarrek emaniko botoen arabera osatu den nazio erakunde bakarra». Hala dio Udalbiltzak. Eta horregatik uste du sendo egon behar duela. Areago, egungo egoera politikoan. «Abiatzen ari den prozesua bultzatzeko konpromisoa» berretsi du hargatik. «Prozesuaren beharrei aurre egiteko, Udalbiltza berrantolatatu eta berrindartu behar dugu eta Euskal Herriko udal hautetsien gune bilakatu», dio. Hartara, Udalbiltza berrantolatzeke «konpromiso publikoa» adierazi du.

EKAINAREN 10-EAN, LIZARRAN. «Berrindartze» lan horretan jarraitzen du eta ekainaren 10erako «beste mugargiri xumea» jarri du. Ekitaldia antolatu du Lizarran (Nafarroa), beste urrats bat egin nahian. «Prozesuaren erronkei aurre egiteko nazio erakunde egokiak behar ditugu», azaldu du. Horretarako, 1999. urtean Euskalduna Jauregian onartutako bost printzipioak udal hautetsi guztien artean garatu behar direla dio. Bide horretan, hautetsiekin harremanetan jartzeko dinamika iraunkorra abiatu behar dela jakinarazi du.

HITZ BITAN

IRUÑEA. Topagunea Euskara Elkarleen Federazioak Mintza Eguna egingo du gaur Iruñerrian. Euskal Herriko mintzalagunen, berbalagunen eta abarren bilgune izan nahi du. Eguna 11:30ean hasiko da Gaztelu plazan.

DONOSTIA. Gaur 27 urte beteko dira Guardia Zibilak Gladys del Estal ekologista donostiarra Tuteran, (Nafarroa) hil zuenetik. Energia nuklearraren kontrako jardunaldi batean parte hartzen ari zen. Omenaldia egingo diote gaur Gladys Enea parkean, 19:00etan.

ORDIZIA. Oiangu Eguna egingo dute gaur Ordizian (Gipuzkoa), eremu horretarako aurreikusitako proiektuen kontra, Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak antolatu. Goizean ibilaldia egingo dute herritik Oiangu parkera.

GIPUZKOA. San Markos mankomunitateak kanpaina berezi bat egingo du uztailearen 2tik 10era birziklartzeko zaborrak hasieran bereiztu behar direla nabarmentzeko.

Adostasunik ez VWren proposamenaren inguruan

Landabengo langileen batzordea datorren astean bilduko da enpresaren proposamena aztertzeko

ERREDAKZIOA
Iruñea

Bi hilabetez lan itunaren inguruko negoziazioak etenda egon ostean, atzo goizean bildu ziren bigarrenez Landabengo zuzendaritza eta langileen batzordea. Aurretik, ordea, langileen ordezkariak beraiek egin zuten batzarra, eta Benito Uterga LABeko ordezkariaren esanetan, «sindikatuaren artean desadostasunik dira nagusi».

LABentzat, esaterako, «ez ditu hitzarturik dituzten gutxieneko du uztailearen 2tik 10era birziklartzeko zaborrak hasieran bereiztu behar direla nabarmentzeko.

2006ko urtarrilaren 26an itundu zituen gutxieneko baldintzez ari da Uterga.

Zuzendaritzak proposamena enpresaren inguruko zenbait xehetasun argitu zituen atzoko batzarrean. Batetik, 2005aren truke ordaindu beharreko saria 1.000 eurokoa izango dela zehaztu zuten; eta besteetik, KPI gehi hiru ehunen emateko prest agertu zen datozen hamairu hilabetetan. «Nolabait esateko, langileoi egiten digun xantaia areagotzen ari da enpresa». Hala iritzi dio Utergari. «Guk erantzuten diogunaren arabera hartzen ditu etorkizuna baldintzatuko diguten erabakiak».

Datorren astean berriro biltzeko da langile batzordea proposamena aztertzen jarraitzeko.

Bestalde, Volkswagen taldeak Alemaniako sei lantegitan 85.000 kaleratze egiteko plana jarri du martxan.